


B

BARREN

TOKIKOM

Orain musikari

Zuhaitz Gurrutxaga



3000 Sette 



230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua barne



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak

- Guztiz hornitutako sukaldea
- BISITATU EREDU-ETXEBIZITZA



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

Urte berri on

Pasau dira Gabon jaixak aurten ere. Orain dala bi milla urte, gu bezelako Gizon Haundi txiki bat jaixo zalako ospatzen diran jaixak. Haren gogoramenak bultzatzen gaittu egun hórrek ospatzera urtiak pasau ahala; ez danok pentsamolde berdiñekin: siñismendunok zentzu berezi bat emanez, eta siñisgabiak beste zerbait izango debe. Garrantzitsuena: maittasunezko eta desio oneko jaixak dira, elkarrekin ospatzeko. Ze opari ederra Aitta-Ama Goikuak egin ziguna, gu bezela gizon egittian! Misterixo haundixa da, baiña hor dago. Neri misterixo hitz haundi horrek betidanik sortu ditt sekulako zirrara zoragarri bat nere barruan; esanahi haundikua, nahiz eta ezin ulertzekua. Abesti batek ederki esaten dau: “Begiz ikusten ez dena, ikus dezagun fedez”. Hortxe dago dana. Misterixo horren aurrian, fedez, burua makurtu eta kitto!

Egixa da hainbat aldiz entzun dala jai hónek tristuria ematen debela, eta ez jakola jende askori gustatzen, eta pasauta baleude hobeto... Ulertzekuak dira, bai, gurekin ez dauden maitte dittugunak gogoratzen sortzen diran tristura eta nahigabiak, baiña gure artian ez daudenak inguruan somatzen dittugu gogora ekartzen dittugunian, eta eurekin igarotako hainbeste hainbeste momentu xamur gogoratzen dittugunian. Nik fededun moduan, siñisten dot gure aurretik jua diranak betiko Gabon jaixak ospatzen ari dirala, buruz buru, gure artian jaixo zan Haur txiki Haundixarekin; ziur nago

neriak dauden lekuan, ni ere izango naizela egunen baten, Jaixotza haura ez zalako alperrikua izan, eta itxaropen horrek sekulako arnas sakona hartu eragitten ditt eta nere barrena pozten dau.

Zorionak, nahiz berandu xamar izan, Parrokixako abesbatzari eta Elgoibarko bandiari, eliza aurreko gure enparantza eder horretan, Gabon bezperan, eskeiñi ziguen abesti eta doñuengaittik, han sortu zan giro eder eta xamurragaittik, eta zorionsu egin gindduzelako han elkartu giñan guztioi. Urte berri on bat guztiori.



Maite Vallejo

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Jaixotza haura ez zalako alperrikua izan,
eta itxaropen horrek sekulako arnas sakona hartu eragitten ditt”**

**Mediatekako erretratuak erosteko
aukera daukazu! Argazki bakoitza 2 euro.
SARTU, IKUSI ETA AUKERATU ZEUREA!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



ZUHAITZ GURRUTXAGA

FUTBOLARIA ETA KANTARIA

**“Ate dezente zabaldu ditut,
eta mila gauza hasi ditut,
baina laga ere
erraz lagatzen ditut”**

Zelaitik oholtzara saltoa eman du Zuhaitz Gurrutxagak. Badira urte batzuk Xabi Alonsorekin batera trikitia jotzen ikusi genuela, milaka realzaleren aurrean, eta orain, gitarra eskuan dabil, bakarlari. Donostiako taberna batean eman du lehen kontzertua, “lagun artean”. “Kontzertu xumea, baina ikaragarri esperientzia polita” izan zela aitortu du, eta badu errepikatzeke gogoia.

Futbolari moduan aspalditik ezagutzen zaitugu, baina musikarako zaletasun hori noiztik datorkizu?

Realean nenbilela hasi nintzen gitarra jotzen ikasten Donostian, denbora libre dezente neukalako. Su Ta Garren abesti batzuekin hasi nintzen, eta jabetu nintzen akorde batzuekin kapaz nintzela abesti batzuk egiteko, oso modu xumean bazen ere. Hala hasi nintzen konposatzen.

ETBko saio batean aitortu zenuen neskatan errazago egiteko kolpe egin zeniola gitarrari. Su Ta Garren abestienak jotzen jardun beharrean beste kantu lasaigo batzuk jotzen imaginatu zintugun.

Jajaja. Erdi brometan esan nuen hori, baina egia da gitarra beti dela baliabide on bat etxera kafea hartzera datorrena erakartzeko. Brometan bota nuen nik, baina gitarra jotzen duten askok sarri erabiliko zuten halako trukuren bat.

Ez al da nahikoa futbolari izatea?

Futbolariok ez dugu inoiz izan pertsona argien famarik, eta erakutsi egin behar beste gauza batzuk egiten ere badakigula.

Zure ibilbidea jarraitu duenak badaki mila saltsatan aritua zarela, eta zeuk esana da, era berean, ate asko zabaldu dituzula. Zein izan daiteke hurrena?

Bai, egia esan, ate dezente zabaldu ditut, eta mila gauza hasi ditut, baina laga ere erraz lagatzen ditut. Ez naiz oso estresatuta bizi, eta ez naiz pertsona aktiboa esaten dena ere. Ez dakit aldi berean bi gauza egiten. Iaz bertso eskola batean jardun nuen, aurretik antzerki eskola batean



ere saiatu nintzen, trikitia ere probatu dut... eta orain, berri, monologo bat prestatu nahian ari naiz. Inongo presarik gabe, lasai-lasai, baina gustatuko litzaidake tabernaren batean aurkeztea noizbait. Futbolari gisa aurkeztu eta futbolaren inguruko kontuekin eta futbola ez direnekin umorea sortu nahi nuke, barre eginarazi jendeari.

Umorea aipatu duzula... aldageletan ere zeu ei zara gatz pixkat jartzen duena.

Talde barruan, lotsa handirik ez daukat, egia esan. Amak beti esaten dit lotsarik behar ez denetan lotsatzen naizela ni, eta bestelakotan ez, baina halakoxea naiz. Sekreturik ere ez daukat, eta gustatzen zait nire hanka-sartzeez natural jardutea. Saiatzen naiz nire buruaz barre eginaz besteei barre eginarazten.

Ezagutzen zaituztenen arabera, saiatzaren zaren gauza guztietan airoso iritetzen zara.

Bai? Nik uste ondo ezagutzen nauenak badakiela ezertan ez naizela ona. Gainditu, gaindituko dut, beharbada, baina ona izatera ez naiz iritsi ezertan. Inork ez nau ikusten bertsolari on bat moduan, ezta musiko edo antzezle on baten moduan. Monologoan kasuan, batzuek esan didate, bai, beharbada horretan egin dezakedala zerbait ganorazkoa, baina oraindik hasi ere ez naiz egin...

Antzerkian emandako pausoak lagungarri izango zaizkizu. Nola sartu zinen mundu horretan?

Madriren hasi nintzen, Rayo Vallecanon jokatzeko ibili nintzanean. Inter-

“Amak beti esaten dit lotsatu behar ez denetan lotsatzen naizela ni”

pretazio eskola batean eman nuen izena han, eta gustatu zitzaidan esperientzia. Gauza dezente ikasi nituen, eta gero Donostiara itzuli nintzen, antzerki eskola batean hasi nintzen. Urte osoa obra bat prestatzen eman genuen, eta nik uste itxuran egin genuela.

Barixakuan telebistaz ikusi genuen Zuhaitz Gurrutxaga musikariaren debuta. Zelako sententzioekin jaitsi zinen oholzatik?

Gitarrekin eta bakarlari moduan jende-aurrean agertzen nintzen lehenengo aldia zen, eta gustatu zitzaidan. Aurretik, soinua jotzen jardun nuen 25.000 lagunengatik aurrean, Xabi Alonsorekin batera, Real bigarren gelditu zenean egin zen ekitaldi batean. Beste esperientzia xeblebre bat ere izan nuen, Rio de Janeiron, uda batean. Riora joaten nintzen bigarren urtea zen, eta bidai hartarako ikasiak nituen portugesez abesti batzuk. Kontzertu batean jendearekin abesten ari nintzela, musikariak ikusi eta oholtzara igotzeko eskatu zidaten, eta lau bat abesti kantatu nituen samba talde batekin. Hemengo lagun batzuek ikusi zuten, eta xeblebrea izan zen. Ahal nuen moduan jardun nuen. Donostiako Leize-Gorria tabernako saio horretarako, baina, apur bat nerbioosoago nengo. Ez nago ohituta mikrofono aurrean jarri eta nire ahotsa horren altu entzuteran, eta hasieran kostatu zitzaidan, baina aurrera egin ahala, lasaitu nintzen, eta ondo.

Kantuan Mikel Urdangarinen traza hartu dizu batek baino gehiagok. Gustatzen al zaizu konparazioa?

Bai, bai. Oso gustukoa dut Mikelen musika, eta Madrilen bera ezagutzeko zortea ere izan nuen. Orditik mantentzen dut berarekin harreman bat. Inoiz elkarrekin jotzeko aukera ere izan dugu lagun artean, eta egia da, beharbada, halako *deje* moduko bat hartu dudala nahi gabe harengandik. Saiatu beharko nuke hori kentzen, akaso, baina, bueno, edozelan ere, ez zait iruditzen ispilu txar bat eredutzat hartzeko.

Musikaz bizitzeko asmorik ez daukazula entzun genizun. Lagun arteko kontu bat zela gehiago. Noizko Elgoibarren kontzertu bat?

Jajaja. Egia esan, badira pare bat urte horri bueltaka hasi ginela Gilerekin, Iratxoko jabearekin, erdi brometan edo. Berak erraztasun guztiak jarriko zizkidala agindu zidan, baina Elgoibarren jo ahal izateko, ganora handiagorekin hartu beharko nuke hau, eta berriro jarri beharko nuke abestiak prestatzen, herrian bertan erridikulorik ez egiteko. Garbi daukat, hala ere, noizbait jotzen badut, Iratxon izango dela.

Zeri kantatzen diozu?

Aurreko batean, Joaquin Sabinari entzun nion horren erantzuna. Ez da gauza berria, baina berak esaten zuen gauza onen eta bizitza alai baten inguruan abesti gutxi egiten direla. Sabinak zioen minetik eta tristuratik iritertzen direla abesti onenak, eta nik uste nire kasuan ere horrela dela. Zorionez ez ditut momentu txar asko izan, baina beti izan ditut beherakada uneak, eta halakotan errazago inspiratu izan naiz. Entzule moduan ere, abesti horiek gehiago gustatzen zaizkit. Nik uste gustatzen zaigula entzutea besteek ere gure antzeko beherakadak izaten dituztela. *Mal de muchos consuelo de tontos* esaten da, ezta? Ba, hori.

Letrak orduan zeure bizipenetan oinarritutakoak dira, ezta?

Bai. Elgoibarren, gaztea nintzenean, edo bueno, 16 bat urte nituenean egiten nituen juergen inguruan idatzi nuen lehenengoa, eta gero hasi nintzen abesti sakonagoak-edo egiten.

Etxean zelan hartu dute zure afizio berri hori?

Etxean, ondo. Amak, oso ondo. Aita San Migelgoa da, langile generaziokoa, eta gustuko duela jakin arren ez dit horren azkar aitortzen. Nik egiten ditudan gauza asko txorakeriak iruditzen zaizkiola jakin badakit, baina normala da.

San Migelgo modernoa irten zaio semea eta...

Bai-edo. Enteratuta nago gustatu zaiola, baina ez da ausartzen neri onartzera.

Bestela ere bagenekien, baina zure Myspace-ko ataria ikusita, begibistakoa da itxurari garrantzia handia ematen diozula. 90. minutu futbollean ibilita, gandor hori tente mantentzeko zer egiten duzun ere galdezten du jendeak...

Jajaja. Bueno, fisikoari berari ez diot aparteko garrantzirik ematen, zortez sekula ez dudalako arazorik izan. Baina estetikari, bai, estetika zaintzea gustatzen zait. Oharkabean pasatzeko ere izan daiteke, ez dakit. Kresta, berriz, badakit modaz kanpo ere egon daitekeela, baina gustatzen zait; gustatzen zait aldatzea. Halako gauzak iruditzen zaizkio gure aitari txorakeriak, eta esan izan dit badela sasoiak horiek lagatzeko ere, baina ez diot kasurik egiten. Euskal Herrian estrabagantzia gutxirako aukera ematen zaio jendeari, baina niri txapela janzteak edo kresta eramateak edo halako gauzek segurtasun puntu bat ematen didate. Elgoibarren, edo etxekoen inguruan, gutxiago ausartzen naiz, beharbada, baina gustatzen zait.

San Migeldik, Donostiara. Baseri girotik hiriburura.

Bai. 17 bat urterekin joan nintzen Donostiara, etxetik kanpo bizitzera. Buelta asko ematen ditut San Migelera. Nire sorlekua da, eta gustura bueltatzen naiz. Egia da, era berean, hiriburuak ematen dituen aukera guztiak eskura izanda, orain zaila egingo litzaidakeela San Migelgo egunerokora bueltatzea, baina han topatzen ditudan lasaitasuna eta familia giroa izugarri estimatzen ditut.

Ainara Argoitia

Zuhaitz Gurrutxaga, bere lehenengo kontzertuan, Donostian.




loliastoreka

Cocidito madrileño antzezanaren bigarren zatia izango da gaur Herriko Antzokian, eta taula gainean izango den aktoreetako bat da Loli Astoreka. Urte asko daramatza aktore lanetan, eta telebista eta antzerki munduan ezaguna da. Kasualitatez sartu zen antzerkigintzan. Lanbide polita, eta aldi berean gogorra dela adierazi du aktoreak.

Ainhoa Andonegi

“Hemen badakigu geure buruaz barre egiten”



Zertan datza Cocidito Madrileño antzezanaren bigarren zatia?

Jakingo duzuen moduan, *Cocidito Madrileño* Radio Euskadiko saio bat da. Aizpea Goenagak eta Galder Perezek irratsaioko zati batzuk hartu eta dramatizatu egin dituzte. Ez dauka lehenengo zatiarekin zerikusirik. Biak dauka irratsaioan oinarrituta, baina desberdinak dira. Oraingoan jaiak ospatzeko batzorde bat sortu da. Irratia iritsiko da kale horretara jaien antolakuntzan nola dabilzan kontatzeko. Umore edo komedia saioa da, eta gure nahia jendeak ondo pasatzea da. Orain arteko emanaldietan ikusleek umorez erantzun dute.

Hemengo publikoak badauka umorerik?

Bai, oso publiko ona da. Oso sanoak gara eta geure buruaz barre egiteko gai gara, eta hori oso inportantea da. Hori da gure osasunaren oinarria.

Elgoibarren behin baino gehiagotan izan zara. Nolako ikusleak gara?

Elgoibarren beti gustura aritu naiz. *Ama quiero ser lehendakari* antzezanarekin entsegu guztiak Elgoibarren egin nituen, eta obra bera ere han estrenatu genuen. *Ezker-eskuma* lanarekin ere izan ginen, eta, egia esan, oso

gustura. Beti harritu izan nau Elgoibarko antzerki emanaldiak hain berandu izanda, zenbat jende joaten den antzokira. Gainera, adin guztietako jendea joaten da, eta jendeak ondo erantzuten du.

Antzezanaren lehen zatiak arrakasta handia izan zuen. Nolako harrera izan du bigarrenak?

Momentuz oso ondo gabiltza emanaldiekin, baina krisia dela-eta, ikusle kopurua jaisten ari dela diote.

Antzerkira ere iritsi da krisia, orduan?

Antzerkian beti gaude krisian! Baina beno, lehenengo saioarekin emanaldi pila bat egin zituzten, eta espero dugu bigarrenak ere ondo funtzionatzea. Ekain aldera arte ibiliko gara, eta espero dut krisiak eragin handirik ez izatea.

Orain antzerkian zabilta, baina beste medioak ere probatu dituzu. Zein gustatzen zaizu gehien?

Denak gustatzen zaizkit. Orain telebistan jardutea nahiko nuke, batez ere, erosotasuna eta ziurtasuna ematen duelako. Telebistan badakizu noiz hasten zaren lanean eta noiz amaitzen duzun. Gustoren, baina, antzerkian sentitzen naiz. Hala ere, antzerkiak ez du ziurtasunik ematen. Azken bi urteotan 60-65 emanaldi egin ditut *Ezker-eskuma* lanarekin,

eta suerteko naizela esan dezaket, baina bizi izateko ez da nahikoa. Antzerkian badakizu noiz hasten zaren lanean, baina ez dakizu obra horrek zenbat iraungo duen.

Zuzenekoala ala grabatua nahiago?

Zuzenekoala, dudarik gabe. Horrek ematen duen adrenalina izugarria da, eta gaixotasun guztiak joaten zaizkizu. Baina medio guztietan sentitzen naiz ondo. Zinean, akaso, gutxiago, aukera gutxi izan dudalako. Egin ditut pelikula batzuk, baina ez dira asko izan. Fernando Fernan Gomezek esaten zuen moduan, zinean zain egoteagatik ordaintzen dute. Pelikula zuzendariarena da, eta aktoreak xakeko peoiak bezalakoak gara. Une bat zuzendariak nahi duen bezala grabatu arte orduak eta orduak pasa daitezke. Baina emaitza oso ona izaten da. Antzerkia gehiago da aktoreen momentua. Zuzendariarekin prestatzen da pertsonaia, baina taula gainean norbera da publikoarekin harremanetan dagoena. Arina da, eta ikusleen emaitza zuzenean jasotzen da. Hala ere, denetik egin eta probatu behar da, eta modalitate guztietan aritzen naiz gustura. Lanbide honek daukan onena da uneoro gauza berriak ikasteko aukera ematen duela.

Umorezko paperak egin izan dituzu askotan. Zer behar da ikuslea barrezka jartzeko?

Batez ere, gidoi onak izatea da beharrezkoa. Pertsonaia erakargarria izatea, eta tokatzen zaizun unea sinesgarri egitea. Neu ere umoretsua naiz eta, gainerakoak bezalaxe, pozik bizitzen ahalegintzen naiz. Umore arloan kokatzen naute batez ere, baina bestelako paperak ere egin izan ditut. Egia esan, egin dut eskaini didatena. Zoritzarrez oraindik ez daukat lanak aukeratzeko edo baztertzeko pribilegiarik.

Noiz eta nola erabaki zenuen aktore izatea?

Kasualitatez izan zen. Urte asko dira dagoeneko!

Udan herriz herri joaten ginen jaietara. Egun batean, Comicos de la Lega taldearen *Vivir por Bilbao* obra ikusi nuen, eta antzezlanarekin maiatemu egin nintzen. Emanaldiaren ostean, eszenatokiko gauzak bazten lagundu nien, eta enteratu nintzen euskarazko obra bat egiteko jende euskalduna behar zutela. Baietz esan nien, eta gaur arte.

Etxean nola hartu zuten zure erabakia?

Buruko min handiak sortu nizkien etxekoei. Orain hobeto ikusita dago lanbide hau, baina garai hartan komikoa edo titiriteroa izatea ez zen serioa. Gainera, etxeko txikiena nintzen, eta disgustua hartu zuten. Magisteritza egin behar nuen, eta begira non bukatu dudana! Horretaz bizi

naiz, eta espero dut aurrerantzean ere horrela jarraitzea. Nire helburua lanbide honetan segitzea eta jubilazio duin bat edukitzea da. Uste dut lanerako sasoirik onenean nagoela, eta, zorionez, lanik ez zait falta.

Kanpotik begiraturata lanbide polita dirudi zeureak, baina alde txarrik ere izango du, ezta?

Lanbide guztiek bezalaxe, gauza onak eta txarrak daude hemen. Kanpotik polita ikusten da, baina aldameneko intxaurrak beti izaten dira gozoagoak. Lanbide gogorra da. Lana dagoen lekura joan behar da. Ni neu ere kanpoan ibili izan naiz lanean, baina gaur egun ez dago kilometrorik! Nik beti esan dut, baina, Euskal Herrian lan egin nahi dudala, eta iruditzen zait hemen badagoela denok bizi izateko, eta ondo bizi izateko lana. Espero dut berriz ere produkzio eta lan berriak sortzen hastea hemen, azkenaldian egoera nahiko motel egon baita.

Nolakoa da ezaguna izatearen kontua?

Ez diot aparteko garrantzirik ematen. Badakit ezaguna naizela, baina askotan ahaztu egiten zait nor naizen. Lagunekin irteten naizenean konturatzen naiz jendeak begiratu egiten didala, baina beti errespetuz tratatu izan naute. Jendeak maite nauela sentitzen dut.

Egindako lanen artean, zein aukeratu zenuke?

Zaila da, baina obra guztiak egingo nituzke berrirori. Aurtengo udan *Bilbao Bilbao* obra berriz egiteko aukera izan dut Arriagan. 25 urte geroago, orduko lankide eta zuzendariarekin egin genuen obra, eta azken emanaldian Arriagan bizi izan zena sekulakoa izan zen. Sekulako agurra egin zigun publikoak. Baina nire lan guztiek daukate zeozer berezia, eta interpretatutako pertsonaia guztiak geratzen naiz. Baina atzera sekula egin behar ez denez, orain dauzkadan obrekin geratzen naiz: *Ezker-eskuma* eta *Cocidito Madri-*

leño 2.

Zer ez zenuke sekula egingo?

Dena egingo nuke. Paper asko tokatu zaizkit gustukoak ez direnak, baina azkenean neure egin ditut. Nire gorputza jarri behar diet, eta azkenean neureganatzea lortzen dut. Neure egiten ditut pertsonaiak, eta azkenean gustura egiten ditut. Ez nintzake ausartuko esaten hau edo beste ez dudala sekula egingo.

Jubilatu aurretik, zer egin nahiko zenuke?

Telesail bat egitea nahiko nuke, ahal dela euskaraz. Hemen bizitzea erabaki dut, eta hori da nire helburua.

“Aktore izan nahi nuela erabaki nuenean, buruko min handiak sortu nizkien etxekoei”





BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gizon grisak

Beste behin Super Lopez eta AHT pastelaren lagunak elkartu dira, oraingotan Itsasondan, eta jendartea lasai utzi dute beraien hitzekin: gutxi batzuk garelako proiektu hain errentagarriaren alde ez gaudenok, ingurugiroaren maitalea omen da trena edo inpaktu paisajistikoa minimoa duela trenak... Jo zer erraza den batzuentzat, mekatxis! Gorbata janzten hasi beharko dugu!

Kuriosoa da gizarteari horrelako lau edo bost gezur esanda nola trankil eta lasai gelditzen den. "Progresu" hitza entzun eta uuuuuuuuu: txalo zaparrada (gorbataren ondorioa).

Horrelako jendearekin ezin da gizarte garbi eta zentzuduna sortu. 7000 milioi euro gastatuko dute urtebetean. Esango diguzue ez dagoela behar gehiago AHTa baino lehen? Gainera denon dirua da, alde daudenen eta ez daudenen dirua. "Krisiaren aurkako talka neurria" omen da, ostia ederra poltsikora, bai. Super Lopezen lagunak *high-class*-ekoak izango dira, baina esaten dute igotzen dena kaka maldan behera bezala jaisten dela. AHTaren erabilpena goiko hegaldietako krokodilo horientzat itzela da, hiriburuetako denborak laburtzeko egina, ze gaur egun denbora dirua omen da.

Baina denbora gutxira gure ondorengok Euskal Herriko paisaia tipikoak ez dituzte ezagutuko. Super Lopezen bizkarrezurra gure protesia da; zulo, lokatz, inora ez doazen urak, bueltarik gabeko bidea azkenean.

Gizakien odola gorria den bezala, inguruko mendien odola grisa da. Egun

batean ixilik geratuko dira gaur isiltzera behartzen gaituzten gizon grisak. Orain urrea balio duen denborak esango diguzer, non isiltzen den. Gu ez behintzat.

AHT ez, Elgoibar ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855 AZALEKO ARGAZKIA: Andoni Canellada (Argazki Press)



Abel Irizar



Alberto Agirreazaldegui

Hauxe da gure despedida,

Alberto. Bi urte eman ditugu elkarri moka, eta orain beste bikote bati lekua egitea erabaki dugu, "nahikoa duzue!"

Bai, Abel, zure duda-mudak ulertzen ditut, ez baita erraza izaten gaia aukeratzea. Zuk aipatu dituzenez, esatera noa euskal presoen eskubideak ez direla errespetatzen eta senideek sufritzen duten umilazioak ez direla onargariak inolaz ere. Une honetan preso elgoibartarrak gogoan ditut, eta besarkada bat bidali nahi diet BARREn bitartez, irakurriko dutelakoan.

entzun aurretik.

Dudatan egon naiz zeren gainean idatzi azken artikulua hau: idatz nezakeen euskal presoen eskubideen gainean eta senideak sufritzen ari diren umilazioen gainean. Edo elizako kanpaien eta lorik ezaren inguruan. Kritika nezakeen Aita Santuaren ateraldi antologikoa. Eska niezaiokeen ETari behingoz armak uzteko eta prozesu berri bati ekiteko... Baina ez, gaurkoan identitate-kontuak atera nahi ditut gure plazara, Alberto: nongoa da pertsona, jaio eta hazi den lekukoa, ala bizi den lekukoa?

Bidenabar, esan diezaiedan, baita ere, egin dezatela beraiei dagokien guztia prozesu berria abia dezaten, ETari bukatzeko ordua dela adieraziz, irtenbide duinena aurkitu asmoz. Hori da, nire ustez, gizartearen gehiengoak nahi duena.

“Nongoa da pertsona, jaio lekukoa ala bizi den lekukoa?”

“Zuk adierazitako sentsazioak bizi izan ditut nik ere”

BARREn txoko honetan jardun dugu zuk eta nik: zu elgoibartartutako elgetarra, eta ni mutrikuartutako elgoibartarra. Ez gara, sortzez, bizi garen herrikoak. Betidanik jo izan dut neure burua elgoibartar peto, baina orain neure bihotza bitan banatu beharra ikusten dut: Mutrikuk elikatzen nau etengabe, baina ez dut neure elgoibartartasuna galdu nahi. Elgoibarko seme sentitu nahi dut, baina gero eta arrotzago sentitzen naiz Elgoibarren. Mutrikuar sentitu nahi dut, baina kanpokoak naiz mutrikuarrentzat. Zaila da leku batean bizi gabe leku horretako sentitzea. Eta zaila da kanpokoarentzat leku berrian sustraitzea. Ederki asko bizi naiz, baina sentsazio arraroa da.

Identitate kontuei buruz zer esango dizut bada zuk ez dakizunik. Nongoa naizen badakit, eta zuk adierazitako sentsazioak bizi izan ditut nik ere. Hango nahiz hemengo, batzuek bereizketak egiten saiatzen badira ere, kontua da Euskal Herrian jaio eta bizi garela eta, euskalduna naizenez, ez naizela gehiegi arduratzen elgoibartarretik gehiago dudana elgetarretik baino, denetik dudalako pixka bat.


BARREn eta azken bi urteko zozokeriek Elgoibarrekiko lotura mantentzen lagundu didate. Orain, amaitu aurretik, sintoma horrentzako azken errezeta eskatzen dizut, Alberto.

Nolanahi ere, Euskal Herriko kanpokoekin ere badugu harremanik eta beste herrialde askotako izaera ere kutsatu zait noizbehinka, nire onerako, noski. Tokian tokikoa oso garrantzitsua da, baina begiak zabaldua edukiz eta edonongo proposamen interesgarriak geureganatuz.

Azkenik, agurtzea besterik ez zait gelditzen. Gu saiatu gara onena eskaintzen. Irakurleen gustukoak izan badira, ez daukate meritu makala eta, bestela, geurea izan da errua. Ondo izan Abel, eta ea Mutrikun, Elgoibarren edo Arnoaten laster elkar ikusten dugun.



Elgoibarko Udala



Polemika handia sortu du Gipuzkoako gotzain berriaren aukeraketak.

Zer iritzi daukazu Jose Inazio Munillaz?



Aurora Rodriguez
56 urte, etxeakoandrea

Ez dut ezagutzen, baina, entzun dudanez, jende asko dauka kontra. Hala ere, jendeak erabakitzeo aukera izan beharko lukeela iruditzen zait. Elizak berak aukeratzea eta ipintzea ez zait ondo iruditzen. Denon gustukoa izateko hobe da denon artean aukeratzea.



Victoriano Arnaiz
69 urte, jubilatua

Eskuindarra dela diote, eta bide horretatik ez dut uste emaitza onik etorriko denik. Hemengo egoerara moldatu behar du. Hala ere, askotan ezer jakin gabe kritikatzan dugu, eta nik uste dut aukera bat eman behar zaiola. Zumarragan parroko ona izan zela ere entzun dut.



Javier Lamikiz
36 urte, saltzailea

Ez dakit gauza askorik. Egunkaria irakurtzeko ohitura badaukat, baina gai hori ez zait asko interesatzen. Erljioa eta politika nahastu dituzte, baina hori ere ez dago gaizki. Sekula ez dut pentsatu, baina akaso gotzaina aukeratzeko ere hauteskundeak egin beharko lirakete.



Esperanza Folgoso
69 urte, etxeakoandrea

Sekula ez du denen gusturako euria egiten! Nik uste dut hemengo egoerara moldatzeko arazorik ez duela izango, eta euskaraz baldin badaki ez du arazorik izango. Egia esan, gero eta apaiz gutxiago dago, eta aukeratzeko askorik ez dago. Ikusi egin beharko da.

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

**EZETZ ASMATU ZEINEK
KANTATU DUEN**

SOLVIA ETXANIZ MIREN ANFRIZA MAIALEN LUJANBO
AMETS ARZALLUS BEÑAT GAZTELUMENDI ANDONI EGARA

Bertso saioa Azkoitian

GAI JARTZAILEA: UNAI ELEZASU

ANTOLATZAILEA: MAXIKATZEN
EUSKARA ELKARTEA
TOKIA: BAZTARTYO ANTZOKIA
EGUNA: 2019-11-16 OROUA: 18:30ak MERENDAKO ORDUA

MAXIKATZEN
EUSKARA ELKARTEA

SARRERA 9 €.
MAXIKATZENEN BAZKIDEEK ETA TOPAKIDE TRARTELA DUTENEN 6€
Sarrerak aurrez salgai Hizki papertegian



Iñiguez de Karkizano kalean zuhaitz bat erorita egon da luzarotan: “Hiru hilabete baino gehiago egon da Iñiguez de Karkizano kaleko zuhaitz hori erorita. Udaltzainak sarri ibiltzen dira inguru horretan, baina kostatu zaie zuhaitza kentzea. Gauza horiek lehenago egin behar direla iruditzen zait”. ↓



Mendizale batzuk haserre daude, motorrek Aubixa eta Irui-turri arteko bidea hondatu dutelako: “Kalamua aldean mendiko motorrak pasatzen dira. Bustia dagoenean ibiltzen direnean, bideko hainbat gune lokaztuta gelditzen dira, eta osteratxo bat egitera goazenok aurrera egin ezinda egoten gara leku batzuetan. Motorrek ez lukete bide horietan ibili behar, oinez gabiltzanon kalterako da eta. Behar bada, soluzio bat aurkitu beharko litzateke: beharbada bide espezifikoak egon behar lukete motorrentzako”. ⇒



Gabonak pasatu ondoren ere argiak piztu izan dituzte: “Pasatu ziren Gabonetako jaiak, eta Elgoibarraren, beste inon ez bezala, Gabonetako argiak pizten jarraitu izan du Udalak. Oso ondo. Gero krisi betean gaudela esango digute, eta aurreztu behar dugula, eta Agenda 21 martxan jarri behar dela, eta kontzientzia-zio kanpainak iragarriko dituzte... Hitzak. Hitz hutsak”.



Zuen kezak, gaiderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

I. URTEURRENA

KAIET ANDUEZA GOROSTIZA



*Kaiet maitia,
 Zuk esaten zenuen bezala,
 “apapara” joan zara betiko,
 hala ere, gure bihotz eta pentsamenduetan
 present izango zaitugu beti.*

ASKO MAITE ZAITUGU

2009ko urtarrilaren 16an hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, urtarrilak 16, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



IMHren 20. urteurrenerako hainbat ekintza antolatu dituzte

Otsailaren 3an izango da ekitaldi nagusia



Elgoibarko IMH orain dela 20 urte sortu zela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu ikastetxeak sorrera hura gogoratzeko, eta, bide batez, gaur egungo jarduera azaltzeko eta etorkizunerako proiektuak ezagutarazteko aprobetxatuko dute.

Ekitaldien artean, erreminta makinaren historiari buruzko hitzaldia eskainiko du Carmelo Urdangarin ekonomilari ezagunak eguaztenean, urtarrilak 21ean. Makina Erremintaren Museoan izango da Urdangarinen hitzaldia 18:00etan hasita. Herriarrentzat irekia eta doakoa izan arren, aurrez izena ematea komeni da. Izena emateko deitu IMHra, 943 744 132 telefonora (Leire Alberdi).

Ekitaldi gehiago ere antolatu ditu Makina Erremintaren Institutuak 20. urteurrena ospatzeko. Hala, urtarrilaren 28rako berrikuntza pedagogikoari buruzko jardunaldia antolatu du *Eskola-enpresa harremanak eta Europako kasuak* izenburupean.

Urteurrena dela-eta, IMH Eguna berezia izango da aurten, datorren urtarrilaren 29an. Egitaraua prestatzeko ideien lehiketara jarri zuten abian ikastetxeko arduradunek, eta dagoeneko osatu dute ospakizunen programa. IMHko *triindor*-a izango da ekintzarik berritzaileenetako bat.

Patxi Lopez lehendakariaren bisita

20. urteurrenako ekitaldi nagusia otsailaren 3an izango da. Patxi Lopez lehendakariaren parte hartzea izango du eta, besteak beste, IMHko lehen presidentea, Alberto Ortueta zena, omenduko dute bertan.

Etxeko konponketak egiteko ikastaroa antolatu dute

Udaleko Gazteria Sailak eta Zerikasik elkarlanean antolatuta, etxeko konponketak egiteko ikastaroa hasiko da urtarrilaren 25ean. Ikastaroa moduluka antolatuta dago, eta bakoitzak nahi duen moduluan izena eman ahal izango du. Josteta, brikolajea, iturgintza eta elektrizitatea landuko dituzte. Lehenengo ikastaroa jostungintzarena izango da, eta zortzi orduko saioa izango da. Izena emateko 943 748 271 edo 943 257 986 telefonoetara deitu daiteke, urtarrilaren 22a baino lehen.

Debegesak 42 enpresa berri sortzen lagundu zuen 2009an

Iaz 42 enpresa sortu zituzten Debegesaren laguntzaz Debabarrenean, horietako zazpi Elgoibarren. 49 lagun aritu dira enpresa berriak sortzeko lanean, eta guztira, 53 lanpostu sortu dira. 2010erako enpresak sortzeko metodologia berria erabiliko dute, autoenplegu enpresekin elkarlanean.

Abertzaleek indarrak batzeko deia egin du EAko Urizarrek



Pello Urizar Eusko Alkartasuneko idazkari nagusiak hitzaldia eskaini zuen eguaztenean alkartetxean. Gaur egungo egoera politikoaz eta etorkizunari begira hartu beharreko bideaz jardun zuen, besteak beste. Urizarren ustez, alderdi abertzaleak momentu zaila bizi izaten ari dira une honetan, eta aurrera segitzeko aukerarik onena indarrak batzea dela aipatu zuen. Elgoibarko alderdikideez gain, eskualdekoak ere etorri ziren hitzaldira.

Lekua **Herri Eskolako patioa**



Herri Eskolako patioa estaltzeko lanak hasita daude dagoeneko. 700 metro koadroko estalpea egiten ari dira, eta ikusleentzako gunea eta harmailak eraikiko dituzte. 475.629,60 euroko aurrekontua izango du obrak, eta Miguel Imaz enpresa izango da arduraduna. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (%60) eta Elgoibarko Udalak (%40) finantzatuko dute.

Zenbakia **807**

Elgoibarko odol emaleen elkarteak 807 odol pote eraman zituen 2009an Gipuzkoako Odol Bankura, aurreko urtean baino 69 pote gehiago, hain zuzen ere. Elkarreko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete odola eman duten elgoibartar guztiei, eta gazteei laguntza eskatu nahi diete.

Irudia **Elgoibar zuriz jantzita**



Zuriz jantzita esnatu zen Elgoibar domeka goizean. Hotza, baina eguraldi eguzkitsua irten zen gainera, eta elgoibartar askok majo disfrutatu zuten. Batzuentzako lana, beste batzuentzako buruhaustea, baina gehienentzat gozamen izaten da elurra.

Emakume bat atxilotu dute beste baten kreditu-txartela erabiltzeagatik

23 urteko neska bat atxilotu dute Elgoibarren, berea ez den kreditu txartelarekin 3.000 euro gastatzeagatik. Txartel jabeak salaketa jarri zuen Elgoibarko eta Eibarko saltokietan egindako gastuak igarri zituelako bere kontuan. Ertzaintzak martitzenean identifikatu eta atxilotu zuen neska.

Ikasketa gela zabaldu dute Kultur Etxean

Udaleko Kultura Sailak ikasketak gela zabaldu du Kultur Etxeko sotoan. Otsailaren 8ra arte egongo da zabalik, asteleheneetik barixakura, goizeko 9:00etatik 21:00etara.

Maridaje afaria izango da bihar, Belaustegi jatetxean

Idiazabal gazta eta ardoa uzartzeko afaria izango da bihar, urtarrilak 16, Belaustegi jatetxean. Afarira joateko 50 euro ordaindu behar dira. Urteko Gazta Onenaren Txapelketaren harira egiteko zen, baina elurraren ondorioz, bertan behera geratu zen orduan.

Txankakuaren zozketako zenbaki irabazleak

Urtarrilaren 8an egin zuen Txankakua merkatari elkarteak Gabonetako zozketa. Lehenengo bi sarituek elkarteko dendetan gastatzeko 500 euroko erosketa txekoa jasoko dute, eta gainerakoek ehun eurokoa. Ondorengo hauek dira zenbaki irabazleak:

1. 13973 (ordezkoa: 68954)
2. 76527 (ordezkoa: 35625)
3. 03087 (ordezkoa: 81221)
4. 53594 (ordezkoa: 14190)
5. 56834 (ordezkoa: 49830)
6. 29820 (ordezkoa: 21907)
7. 96986 (ordezkoa: 05767)
8. 42109 (ordezkoa: 74309)
9. 16370 (ordezkoa: 30707)
10. 01778 (ordezkoa: 40909)

Beñat Urain

Txirrindularia

Bergara eta Deba arteko N-634 errepide zatia nekez eza gutuko du norbaitek Beñat Urainek baino hobeto. Ume-umetan hasi zen bizikleta gainean, 8 bat urterekin, eta aurten, bigarren urtea du Orbean, Euskaltelen harrobiko taldean. Eguraldi ona egin zein elurra egin, Urainentzako ez dago atsedunik. Jakin badaki gogor saiatu beharra daukala, profesioaletara salto egiteko ametsa beteko badu. Ilusiorik ez du falta, ezta kemenik ere.

Ainara Argoitia



“Gustatuko litzaidake apiril edo maiatz aldera sasoi onean egotea”

Denboraldi berrirako zein erronka jarri diozu zeure buruari?

Iazko denboraldia hobetzen badut, ni pozik. Iaz, ondo hasi nintzen. Frantzian jokatu genuen itzuli bateko azken etapan, Vauclusen, hirugarren egin nuen, esprintean. Eta gero, denboraldian zehar, nahiko ondo ibili nintzen, postu polit batzuk lortuz eta taldekidei lagunduz. Gutxienez hori lortu nahi nuke. Otsailaren 7an hasten du denboraldia taldeak, eta ikusi egin behar.

Orbeako lauk egin dute Euskaltelera saltoa aurten. Zer nolako taldea du orain Orbeak, eta zeintzuk helburu ditu?

Oso talde gaztea daukagu. Batez beste 22-23 urte izango ditugu. Iaz baino lasterketa gehiago jokatu nahi ditugu, zelan gauden erakusteko aukera gehiago izateko.

Txirrindulari bat birritan iristen omen da denboraldian zehar puntu gorenera. Noiz egongo da Beñat bere sasoirik onenean?

Hala esaten dute, baina gu denboraldi osoan zehar maila erregularra edukitzeko prestatzen gaituzte. Hala ere, gure gorputzak puntu goren bat edo bi izan ditzake. Aurten, gustatuko litzaidake apiril edo maiatz aldera egotea sasoirik onenean. Hortik aurrera ikusi egin beharko da zertarako gai naizen, denboraldia oso luzea baita.

Elurrarekin ere errepidean ikusi zaitugu egunotan. Atsedunik ez al da izaten hala-koetan?

Bai, ibili naiz, baina gutxiago. Aurreko astean rodilloan eta gimnasioan ibili nintzen batez ere, eta ez pentsa hori denik one-

na. Errepidera irten ezean, forma asko galtzen da. Kontuan izan guk normalean hiru-lau ordu egin behar izaten ditugula entrenatzen, eta rodilloan hori ezinezkoa dela. Entrenatzaileak markatzen digu egunean zenbat ordu egin behar ditugun eta zein intentsitatean ibili behar dugun. Urrian hartzen dugu atsedena, hiru astez, eta azaroan hasten ditugu entrenamenduak. Gimnasioa eta bizikleta egiten ditugu, tartekatuz. Gabonak arte, astean hirutan gimnasioko lanak egiten ditugu, eta urtariletik aurrera, gehiago irteten gara errepidera.

Zuen entrenatzailea izan dena, Alvaro Gonzalez Galdeano, Euskaltelera pasatuko da. Hori ona izango da zuentzat, ala? Lagungarri izan daiteke edo ez. Batek da-



Beñat Urain, 4 bat urteko, Aitzol anaiarekin.



Beñat (ezkerrean) lagunekin egindako irteera batean.



Beñat Urain, lehian.

ki. Ondo ezagutzen gaitu, bai, baina one-rako zein kalterako izan daiteke hori. Nik uste, hala ere, horrek ez digula gehiegi eragingo.

Romain Sicard zure taldekide izandakoak munduko txapelketa irabazi zuen iaz, 23 urtez azpikoetan. Zer eman dezake aurten Euskaltelen?

Maila ona emango du, seguru. Itzuli handietan beharbada oraindik ez, oso gaztea delako, baina bestela ziur naiz ondo ibiliko dela. Oso ona da, bai txirrindulari moduan eta baita pertsona edo lagun moduan ere. Aldapan ondo ibiltzen da, lauan ere bai. Dohain handiak ditu.

Zuri entzuna da aldapak gustuko dituzula. Lehen hala esaten nuen beti, bai, aldapan ondo moldatzen nintzela, baina orain jokatzen ditudan lasterketetan nabarmentzea oso zaila da. Zu ondo ibili arren, beste ehun ibili daitezke zu bezala edo hobeto.

Mendaron bada bizikletarako afizioa, baina lehen baino txirrindulari gutxiago irte-ten da. Zerk hutsegin du?

Bai, neu naiz azkena irten dena. Lehen ikastolan bertan animatzen gintuzten txirrindularitzara. Gure garaian kartelak jar-tzen zituzten, nahi zuenak izena emateko, eta hala hasi nintzen ni neu. Orain ez dut uste halakorik dagoenik. Orain dena fut-bola da. Ni hasi aurretik baziren bost-sei bat, eta bailaran bertan ere bazeuden beste batzuk. Bestalde, txirrindularitza oso gogorra da, eta nik uste jendea ez dagoela horrenbeste sakrifikatze prest. Arriskua ere aipatzen dute batzuek, baina nik uste gehiago dela bestea. Disziplina oso gogorra da, eta gero batek bakarrik irabazten du.

Zaila da txirrindularitzan nabarmentzea, bai, eta horren esker txarrekoa dela jakin-da, nolatan hasi zinen bizikletan?

Jajajaja. Hasi nintzenean ez nintzelako

horren kontziente-edo.

Zer egiten zaizu zuri gogorren?

Nik uste lagun planetan sartu ezin hori dela gogorrena. Eta ez naiz parrandak egin ezinaz ari. Gehiago da lagunak men-dira doazenean haiekin joan ezin izatea, entrenatu behar duzulako edo ez delako bateragarria bizikletarekin edo beste mila gauzagarrik. Jatekoa ere zaindu behar da, baina gutxi jaten dugula uste duena oso oker dabil. Asko jaten dugu, baina erre ere bai.

“Lagunen planetan sartu ezin hori da gogorrena. Eta ez da parrandak egin ezina”

Inoiz sentitu al duzu dena lagatzeko go-gorrik?

Bai, behin baino gehiagotan. Lagatzeko beharbada ez, baina beherakada uneak sarri izan ditut. Gero, baina, irteten zara errepidera, elkartzen zara Amets Txurruka eta beste lagunekin, eta buelta ematen diozu. Lasterketa oso gogorrak ere sarri izaten dira, hasieratik ezinean ibiltzen za-renak, eta halakoetan zaila da. Vuelta Rioja, esaterako, elurretan jokatu genuen, eta gogorra izan zen. Ni, gainera, hotza-rekin ez naiz ondo ibiltzen. Hilabeteak ere izaten dira. Etxekoen babesak ere indar handia ematen dit, baina, halakotan. Gu-re aita eta ama oso zaleak dira, batez ere ama, eta asko animatzen nau. Sarri etor-tzen da ni ikustera, eta halakoetan, bide bazterrean norbait ezaguna ikustea poz-

garria da. Presioa ere izan daiteke ba-tzuetan, baina lagungarri gehiagotan.

Zein da zure ametsa?

Profesionalerara iristea.

Eta noizko ikusten duzu Euskaltelera sal-toa?

Buff! Zaila dago. Ilusioa badaukat, bai-na... Denboraldi ona eginez gero, egon daiteke aukeraren bat, baina bestela, jai.

Pauso bat baino ez duzu falta. Horren-beste aldea al dago Continental maila-tik gorengo mailara?

Aldea itzela da. Profesionalekin irteten ga-renean zintzurretik helduta eramaten gai-tuzte, arnas estuka, eta iristen da momen-tu bat bazterrean lagatzen gaituztela eta ki-tto. Oso diferentea da. Gure karrerak zoro-agoak dira. Hasieratik jotzen dira ihesak, eta jo eta jo ibiltzen gara beti. Profesional-etan, berriz, batek jotzen du ihesa, eta gero atzean gelditzen den multzoan talde batek hartzen du tiratzeko ardura. Gureak azka-ragoak izan daitezke, baina profesional-etan liderrak sendagoak dira, eta dena oso lotuta dago.

Ikusgarritasunaren ikuspegitik begiratuta, lotuegi, akaso? Tourrean ez al da hori be-gibistan gelditu?

Gertatzen dena da txirrindularitzan, beste kiroletan bezala, eragin handia duela di-ruak. Hortik dator talde batzuk txirrindula-ri onenak izatea, eta, era berean, eurek izatea tropelaren kontrola. Dena den, Tourrean ere egon ziren erasoak.

Bai, baina talde berekoen artean.

Bai, hori ere bai, baina bestela ere egon ziren erasoak-eta. Sleck anaiek, adibidez, sekulako erakustaldiak eman zituzten.

Orbeakoen artean zugan eta beste zein-nengan jarri behar dugu aurten begia?

Asko berriak dira, eta ez dakit zer eman-go duten. Lehen geundenetatik nik uste Ricardo Garcia oso ondo ibiliko dela.

Erretratu zaharra



1976

Aste honetako erretratu zaharra Agurtzane Larrañagak ekarri du BARRNEko erredakziora. San Anton egunean Odeon zineman jaialdia egiten zen. Herriko umeek hartzen zuten parte dantzan, balletan edota kantuan. Oso egun berezia izaten zen, eta artista txiekie gogor entsaizten zuten senideen eta lagunuen aurrean aritzeko. Ikus ditzagun zein diren erretratuko dantzariak:

Ezkerretik eskumara: Elena Ormazabal, Idoia Esnaola, Maite Iriondo, Agurtzane Larrañaga, Patricia Aizpitarte eta Arantza Kortabitarte.

Gure berbak Hiztegixa: adverbio batzuk (5)

Hona Elgoibarren erabiltzen diran adverbio gehixago.

- ◆ **IÑOIZ:** Oso noizean behin. *Iñoiz jun izan gara Santa Eufemiaraino ere, erromeixara. / Ni goizago juaten nitzan esniekin da ferixara. Iñoiz bai, oilaxkua zanian da, handik-hemendik saltzera ta.*
- ◆ **ITXURIA (izan):** Antza denez, dirudenez. *Itxuria: Eta errietia gogorra eintzian aitxak; itxuria, enterau zan, handik ero hamendikan ero. Itxuria daukanez / itxuria dabanez / itxuria danez* ere bai: *Etorri zan, esan tzien zala injenierua bera, Lafitte. Itxuria, hori apelliduori frantsesa da, itxuria dabanez.*
- ◆ **IXILIK: ixilik egon zaitte!** Berri txar bat entzun ondoren esan ohi da. *-Ba al dakizu Maria hil dala? -Ixilik eon zaitte! Ezta izengo!*
- ◆ **IZATEZ:** Jaiotzez nongoa den adierazten du. *Izatez* ere bai. *Zestuakua zan izatez, baiña hor zerian bizi da, Markiñan.*
- ◆ **JENERAL(IAN):** Normalean. *En jeneral: Gabonetan, en jeneral jute gaituk gu hor zihar. / Nik beti Arrate [irratia] eukitze juat, en jeneal. Jeneralian: Gu otubrian jute gara jeneralian.*
- ◆ **JORRAKETAN (jardun):** Landareren bat jorratzen jardun. Baita *Jorran* ere.
- ◆ **KONPARAZIO BATERAKO:** Adibidez. *Ez, konparazio baterako, ni han jaixo, baiña hazi hemen.*
- ◆ **KONTRA (EGON):** Ondo-ondoan egon, ia elkar ikutzen. Errepikatuta ere bai: **Kontra-kontra(n) egon.** *Kontra-kontran* daure alkarrekin *Radio*

Popularra da Radio Euskadi. / Kamiñuan kontra dao gure etxia. Pegante ere erabiltzen da.

- ◆ **KORRIKA:** Lasterka. **Antxtxika** ere bai.
- ◆ **KURIOSO:** Poliki, astiro, kontu handiz; onargarri, ondo samar. *Kurioso eitte jok lana nere koiñatuak. / Oin kurioso gaude, sasoe baten eon giñan aldian.*
- ◆ **LANTZIAN BEHIÑ:** Noizean behin. *Osasunian, txarra daukatenik ezin leike esan, jateko gogo ona ta. Lantzian behiñ eukitze itxut neure kejaxtuak, ezta, e!*
- ◆ **LANTZIAN:** Bakoitzean. *Ba, pizarra bat eote zan. Eta emate ziuzen, ba, lantzian bateri, ba matematikak ipini han da, aber zela ataratzte genduzen. Da bestiak iuel atzian behira zaonak esate zaban:...*
- ◆ **LARRI EGON:** Kezkatsu. *Etxian larri, ze pasatzen ete jakun. Larri ibili:* aurretik esan dena berresteko erabiltzen da. *-Badator ekaitza! -Bai, larri ibili!*
- ◆ **LASTER:** Laster. **Aurki** ere bai.
- ◆ **LE(HEJ)N BAIÑO LE(HEJ)N:** Lehenbailehen. *Holaxe da ta, Jaungoikuak... gaiñera gaixua ta zeoze etortze darian, len baiño len eruan deigula. / Errosaixo aurretik eskatze iot [Amabirjinari] intenimenduko argixa ta bistako argixakin laguntzeko. Da horra dixezen bezela, len baiño len heriotzaren batekiñ eruateko.*

Jesus Mari Makazaga

AIRETIK ATERATAKO ERRETRATUAK SALGAI!
Eskatu zeurea!
Informa zaitetz
943 744 112 telefonoan.

Abenduan...

JAIOTAKOAK



Iria Fernandez Bao
Abenduak 3
Sergio eta Montserrat



Danel Rubio Bergara
Abenduak 30
Oskar eta Juana

Mohamed El Maataoui
Abenduak 1
El Bekkay eta Hanane

Alex Muñoz Crespo
Abenduak 1
Jose eta Laura

Maria Bastida Longarte
Abenduak 12
Iñigo eta Maria

Asel Canton Gallardo
Abenduak 19
Jose eta Maria

Oinatz Arzamendi Azkue
Abenduak 20
Mikel eta Eneritz

June Lopez Vasco
Abenduak 21
Antonio eta Nuria

Mikel Aizpurua Faces
Abenduak 22
Gurutz eta Mertxe

Hugo Leon Canca
Abenduak 26
Raul eta Ana

Ugaitz Amesti Santamaria
Abenduak 28
Jose Inazio eta Olatz

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

HILDAKOAK

- Carmelo Oiarzabal • 86 urte • Abenduak 4
- Miren Itziar Etxabe • 55 urte • Abenduak 7
- Jose Luis Arrizabalaga • 96 urte • Abenduak 14
- Valentin Romera • 58 urte • Abenduak 24
- Ricardo Manuel Tobajas • 87 urte • Abenduak 27

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekhoa) 635 756 295

I. URTEURRENA

JOSE ZUBIZARRETA ALBIZU

“Armaidxa”

2009ko urtarrilaren 15ean hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 16, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

JOSE LUIS ARRIZABALAGA URANGA

“Iriarte”

2009ko abenduaren 15ean hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



San Anton jaietako zigilu erakusketa Musika Bandaren 125. urteurrenari eskainita egongo da

Kontzertuak, antzerkia eta beste hainbat ekitaldi izango dira asteburuan

Udal Musika Bandak 125 urte beteko dituela-eta, hari eskainiko diote aurten San Anton jaietako zigilu erakusketa. Aurten bi zigilu berezi kaleratuko dituzte: bata Jose Zubiaurreri eskainitakoa izango da, bandan izandako ibilbideagatik, eta, bigarrena iaz hil zen filatelia elkarteko Juan Mari Andonegiri eskainiko diote. Altzolatarren Dorretxea elkar-teak antolatuta, bihar inauguratuko dute erakusketa, 12:00etan Kultur Etxean, eta hilaren 24ra arte egongo da ikusgai. Euskal Herriko eta Espainiako 18 lagunengatik bildumak jarriko dituzte ikusgai, tartean, Jose Mari Etxaniz elgoibartarrak dantza eta folklore instrumentuei buruz egin duen bilduma.

Asteburuko ekitaldiak

Urtarrilaren 17an San Anton Eguna izango dela eta, asteburu osorako egitaraua prestatu du Udalak. Gaur, barixakua, *Cocidito Madrileño* antzezlanaren bigarren zatia ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. Antzerkia gustuko ez dutenentzat, pilota partidak izango dira Ikastolako frontoian. Bihar, zigilu erakustetaz gain, Musika Bandaren kalejira, haur parkea,



erraldi eta buruhandiak eta Musikalis Abesbatzaren kontzertua izango dira. Azkenik, domekan, meza, Musika Bandaren kontzertua eta umeentzako antzerkia izango dira (egitaraua, agendan).


Elgoibarko Izarrarekin santa eskean jarduteko izenemate epea urtarrilaren 29an amaituko da

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak baserri baserri irtingo da kopia kantari otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. 1994an berreskuratu zuen elkarteak baserrietako santa eskean, eta aurten ere ez du hutsik egingo. 14:30ean elkartuko dira partaide guztiak Plaza Handian, eta bi taldetan banatuta, 21:00ak aldera arte jardungo dute kantuan. Eguna amaitzeko, Aiastia-San Migel auzoko elkartean egingo dute afaria. Elkarteko arduradunek herritarrek gonbidatu nahi dituzte Santa Eskean parte hartzera: interesatuek 943 741 626 telefonora (Imanol) deitu edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi dezakete. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 29a izango da.



Atxutxiamaikak banatu ditu Gabonetako errifen sariak

Atxutxiamaikak egin du Gabonetako errifen zozketa. Lehen saria, 400 euroko erosketa txekoa, Gorka Muñozek jaso du. Bigarren saria, 150 euroko erosketa txekoa, Arantza Osororentzat izan da. Bestalde, bakoitzak gazta bana jaso du.



Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldietarako sarrerak urtarrilaren 20an eta 21ean salduko dituzte

Ikuskizuna urtarrilaren 31n izango da Olaizaga kiroldegian

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak urtarrilaren 31n etorriko dira Elgoibarrera, eta, azken urteotan bezalaxe, bi emanaldi eskainiko dituzte aurten ere, 16:00etan lehenengoa eta 18:30ean bigarrena. Sarrerak aurrez salduko dituzte: lehenengo saioko sarrerak urtarrilaren 20an salduko dituzte eta bigarren saiokoak urtarrilaren 21ean. Herriko Antzokiko leihatilan erosi ahal izango dira 18:00etatik aurrera, eta pertsona bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu gehenez. Prezioa bost eurokoa izango da.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Irrien lagunak* antzezlanak taularatuko dute. Sudurgorrien Eguna ospatuko dute, ikusleekin batera. Lagun bihurri eta kilikagarriekin, barre eginarazten duten uneak gogoratuko dituzte, eta barre, kantu eta dantza artean, egunero bizi, sentitu eta ikasten diren gauzen puzzlea osatuko dute.



Eskualdeko ehun lagunek hartu dute parte Mendaroko Ipuin Lehiaketan

Mendaroko Udalak antolatzen duen Gabonetako Ipuin Lehiaketan Debabarreneko ehun lagunek hartu dute parte. Cristina Martin elgoibartarra izan da irabazlea nagusien kategorian, eta 250 euroko saria jaso du. Bigarrena Amaia Astigarraga elgoibartarra izan da, eta 160 euro jaso ditu. Gainerako sarituak Mendaroko June eta Hodei Ezpeleta, Elgoibarko Nora Bastida eta Eibarko Julen Oruesagasti izan dira. Herriko lehen irabazlearen saria, bestalde, Enara Agirrezabalagarentzat izan da.

Anton Urreisti margolari mendaroarrak hamar sari jaso ditu 2009an



Urte borobila izan da 2009a Anton Urreisti margolariaren-tzako. Bere marka guztiak ondu, eta hamar sari eskuratu zituen iaz, 2008an baino lau gehiago. Umetatik datorkio margolaritzarako zaletasuna Urrestiri, baina orain dela lau bat ur-

te hasi zen horrenbeste sari eman dizkion teknika erabiltzen, difuminazioaren teknika alegia. Aitor Etxeberria margolari mendaroarrak bultzatu zuela aitortu du Urreistik, eta pena bakarra duela: aurretik hasi ez izana errealistotik aldendu eta difuminazioaren teknika lantzen.

lax irabazi zituen hiru lehenengo sari, bigarren sari bi, beste horrenbeste hirugarren sari, eta bi sari berezi. Euskal Herrian bertan lortu zituen horietatik bederatzi, eta Palentzian (Espainia) beste bat. Denak ditu estimatuak, baina bereziki hiru nabarmendu ditu: Palentzian lortutako hirugarren saria, eta Zumaian eta Mutrikun, bere jaioterrian, lortutako sari nagusiak. "Herrian irabazitakoari maitasun berezia diot, zaila delako norbere herrian jardutea. Baina Zumaia ere oso berezia da, maila handia dagoelako eta zaila delako han nabarmentzea. Berdin, Palentzian ere. Ehundik gora margolari aritu ginen. Palentziako hirugarren sari horrek eta Balmasedan irabazi nuen maila bereko beste batek sari nagusiek beste bete naute", aitortu du.

Juan Antonio Palaciosok irabazi du Morkaikok antolatutako mendiko argazki lehiaketa

Ikusleen saria, bestalde, Antton Alberdik eskuratu du



Morkaiko mendizale elkarteak antolatutako argazki lehiaketa Juan Antonio Palaciosok irabazi du, Otzarreta eta Barazar artean ateratako argazkiarekin. Publikoaren saria, berriz, Antton Alberdik Teleran, ekaitza hasi aurretik, ateratako argazkiak eskuratu du. Guztira, 26 lagunek parte hartu dute 2009ko argazki lehiaketan eta 80 argazki aurkeztu dituzte. Laz baino argazki gutxiago aurkeztu arren, aurkeztutako aleen kalitatea nabarmendu du epaimahaiak. Aurkeztutako argazki guztiekin Kultur Etxeko sotoan egin zuten erakusketa ere arrakastatsua izan dela nabarmendu dute antolatzaileek: “200 bat lagun pasa dira sototik eta horietatik 160 lagunek eman dute euren argazki gustukoenaren aldeko botoa”. Lehiaketako argazki guztiak ikusteko: www.elgoibarren.net

Ezkerrekoa Antton Alberdik ateratako argazkia da (ikusleen saria), eta lerro hauen gainean dagoena Juan Antonio Palaciosena da (epaimahaiaren saria).

Foru Aldundiak Elgoibarko Kirol Patronatuaren kudeaketa eta kirol politika saritu ditu



Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol alorreko hainbat sari banatu ditu, eta horietako bat Elgoibarko Udal Kirol Patronatuari eman dio. Kontuan hartu dituzte Kirol arloko politika, gestioa, herriko elkarteekin daukan harremana, antolaketa eta koordinazioa, kirol instalazioen egokitasuna, eta euskara sustatzeko konpromisoa. Donostiako Kursaal aretoan egin zuten sari banaketa. Alfredo Etxeberria alkateak, Markel Bergara Realeko jokalarri elgoibartarraren eskutik jaso zuen saria.

Ayele Abshiro Mugertza Krosean izango da

laz Mugertza Krosa irabazi zuen Ayele Abshiro etiopiarra aurtien ere Mintxetan izango da. Junior mailako munduko txapelduna da Abshiro eta senior mailako munduko kros txapelketa irabazteko faborito nagusienetako bat ere bai. Leonard Komon eta Mike Kipyego ere bertan izango dira. Mugertza Krosa urtarrilaren 24an jokatu da, 10:00etan hasita.



Laugarren aldiz jokatu du Loiolak San Anton Pilota Txapelketako finala

Partida urtarrilaren 22an izango da Ikastolan

San Anton Pilota Txapelketako finala jokatzeko sailkatu da Eneko Loiola, eta laugarren finala izango du. Uriarterekin bikote eginez, 13an laga zituzten Muguruza eta Uzkudun joan zen barixakuan, ikastolako frontoian jokatu finalaurrekoan. Horrenbestez, iazko finaleko errebantxa hartu dio Eneko Loiolak Muguruza aurrelari bergararrari, Atxotegirekin bikote eginez 12 eta 22 galdu zuen-eta iaz sanmigeldarrak. Muguruza eta Jauregiren aurkako finala urtarrilaren 22an jokatu dute, 22:00etatik aurrera Ikastolako frontoian.

Finalean ez da izango promesa mailan aritu zen Kepa. Finalaurrekoan indartsu hasi ziren bera eta Egaña, baina azkenean Ezkurdia eta Bolinaga izan ziren nagusi (22-16). Hala ere, promesa mailako finalean elgoibartar bat ikuste-



ko aukerarik badago oraindik, Haritz Arribillagak bigarren finalerdian parte hartuko du-eta gaur gauean, 22:00etatik aurrera.

150 gaztetxok hartu zuten parte Sanlok antolatutako Gabonetako eskubaloia jaialdian



Sanlo elkarteak antolatuta, alebin mailako 150 gaztetxok hartu zuten parte Gabonetako eskubaloia jaialdian. Gasteizko, Oñatiko, Zumaiako eta Elgoibarko jokariak bildu ziren Olaizaga kiroldegian, eta partaide guztiek domina bana jaso zuten. Bestalde, 1998 eta 2000 urteen artean jaiotakoentzako teknifikazio saioak egin dituzte urtarrilean, eta Aste Santuan emango diote segida.

EMAITZAK

ESKUBALOAIA

Alkorta Elg. **32** – Zarautz **31** (Sen. mut.)
 Amenabar **18** – Berstain Elg. **263** (Jub. mut.)
 Lauko Elg. **20** – Leizaran **13** (Kad. neska.)
 Trapai **6** – Aterpe Elg. **46** (Inf. neska.)
 Aterpe Elg. **34** – Zumaia **6** (Inf. neska.)
 Altzolako Urak **10** – Astigarraga Elg. **26** (Inf. neska.)
 Astigarraga Elg. **13** – Ayala C **18** (Inf. neska.)
 Ayala C **17** – Ikus Elg. **31** (Inf. neska.)
 Txarriduna Elg. **11** – Arrate **36** (Inf. mut.)
 Arrate **7** – Bankoa Elg. **19** (Inf. mut.)

ESKU PILOTA

San Anton Txapelketa (finalerdiak)

Loiola – Uriarte **22** / Muguruza – Uzkudun **13**
 Kepa – Egaña **16** / Ezkurdia-Bolinaga **22**

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch **8** – Goierri **1**

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, **9**
 12:30 Lanbroa – Idiazabal (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, **16**
 10:30 Elgoibar – Sporting Herrera (Inf. txiki)
 12:30 Elgoibar – Urola (Ohorezko Jub.)
 16:30 Haundi – Arenas (3. maila.)
 18:45 Elgoibar – Antzuola (Pref.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, **16**
 11:00 Astigarraga Elg. – Trapai (Inf. neska.)
 12:15 Ikus Elg. – Zarautz (Inf. neska.)
 16:30 Tecnifuelle Elg. – Zuazo (Sen. neska.)
 18:00 Berstain Elg. – Aloña Mendi (Jub. mut.)
 Domeka, **17**
 9:30 Aterpe Elg. – Aloña Mendi (Inf. neska.)
 10:45 Bankoa Elg. – Arrate (Inf. mut.)
 12:00 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. neska.)

ESKU PILOTA

Barixakua, **15** (San Anton, finalerdiak)

22:00 Otamendi- Landaburu / Arribillaga-Erreka
23:00 Andreu-Gorrotxategi / Atxotegi-Jauregi
 Domeka **17** (Udaberri txapelketa)
11:00 Lagunak-Usurbil (2. mailako jub)
12:00 Lagunak 2- LAPKE (1. mailako nag.)

LANA

ESKAERA

- Mutila zerbitzari lanetarako prest. Esperientziarekin. ☎ **689 144 723**
- Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **657 142 376**
- Neska gaztea edozein lanetarako prest. ☎ **638 520 765**
- Neska gaztea edozein lanetarako prest. ☎ **648 505 985**
- Neska gaztea haurrak zein nagusiak edo garbiketa lanak orduka egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Emakumea umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Mutil gaztea edozein lanerako prest. Zerbitzaria, sukaldari laguntzailea, etab. ☎ **690 701 118**
- Emakumea lanerako prest. Interna. ☎ **638 899 860**
- Neska umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 420 642**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 17:00etatik goizeko 10:00etara. ☎ **662 247 584**
- Neska gaztea zerbitzari lanak, garbiketa lanak egiteko prest eta nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **662 273 295**
- Neska euskalduna prest, pertsona nagusiak zaintzeko arratsaldez, asteburuetan eta jai egunetan. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎ **943 748 209**

- Mutil euskalduna, 20-35 adinekoa. Komertzial arloan gaitasunarekin. ☎ **685 714 572**
- Neska euskalduna etxez-etekeko laguntzaile tituluarekin (UNED), pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez. Marta. ☎ **675 711 658**
- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest nagusiak zaintzen. ☎ **628 014 327**
- Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest asteburuetan eta jai egunetan. Klinika laguntzaile titulua daukat. ☎ **943 748 209**
- Nagusiak zaindu edo etxeak garbitzeko prest. ☎ **943 743 251**

ESKAITZA

- Umeak goizean ikastolara eramateko pertsona bat behar da. Ordutegia: 7:15-9:00 ☎ **943 746 630 (20.00etatik aurrera)**
- Sukaldaria behar da. Esperientziaduna. ☎ **943 743 196**
- Udalak Berdintasun teknikaria behar du. ☎ **943 741 050**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- Lokal-estudio txikia alokatzen da San Roken. 18 urtez gorakoentzat. ☎ **667 838 858**
- Psikologo lanetarako hornitutako bulego bat alokagai. Astean hiru egunetan. Prezioa adosteko. ☎ **649 613 134**

- 100 metro koadroko lokala alokatzen da. Autokarabana bat aparkatzeko egokia izan daiteke. ☎ **605 772 880**
- Mendaroen, Azpilgoetan etxebizitza salgai edo alokairuan. ☎ **685 772 494**
- Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **610 458 552**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Garajea salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13m²+13m² ☎ **620 856 768**
- Seat Ibiza (SS-BH) saltzen dut. 58.000 kilometro, ondo zaindua. Modu onean. ☎ **659 358 141**
- Telefonica parean garaje itxi bat alokatzen da. ☎ **943 742 931**
- Garajea alokatzen da San Roke 5ean. Aterpe tabernaren azpian. ☎ **943 741 837**

BESTELAKOAK

- Betaurrekoak aurkitu ditut Azkarateko bide zaharretan. ☎ **943 531 537**
- Izotz pista desmontatzerakoan 140 cm tallako txamarra bat aurkitu dugu. Debemen elkartean dago txamarra. ☎ **943 744 067**

I AM
TÚ ERES
... هي
GU GARA
VOUS ÊTES
ELES SÃO

Elkar ulertzeko, euskara.

INKIA ENTENDENDO MÚTUAMENTE, EUSKARA
 TO UNDERSTAND EACH OTHER, EUSKARA
 تَرْتَفَهُم فِيمَا بَيْنَهُم فَهِيَ لُغَةُ الْوَسْطَى
 FOR US TO UNDERSTAND EACH OTHER, EUSKARA
 INKA COMPRENDO-SE MÚTUAMENTE, EUSKARA


 EUSKALTEGIAK
 BILKORRI 47008040
 ERREKALDE 010104

✱ **09-10 IKASTURTEA** ✱
MATRIKULA ZABALIK

EUSKARA IKASTAROAK

- ★ HABERen 1, 2 eta 3. mailako azterketak
- ★ EGA
- ★ Hizkuntza Eskakizunak
- ★ Aurrez aurreko eskolak eta autoikaskuntza BOGARen bidez

- ★ 16 urtetik gorakoentzat.
- ★ **Izen-ematea: otsailaren 11ra arte.**
- ★ DIRU-LAGUNTZAK
- ★ Matrikulazio ordutegia:
 - Goizez 9:00 - 13:00
 - Arratsaldez 15:00 - 18:00


www.UDALEUSKALTEGIAK.net

DERABE UDAL EUSKALTEGIEEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Errepublikako 2
20870 ELGORRIAN
Tel./Fax: 943 74 27 31
E-GOIAK
http://euskali.udal.govtsoa.net




• Zorionak, **Oihane**, domekan 3 urte beteko dituzulako. Etxekoen, lagunen eta anaia Asierren partez.



• Zorionak, **Ibon!** Bihar urtetxo bat! Muxu bat Olatzen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **printzesa!** Dagoeneko 5 urte. Ondo pasatu. Muxuak. Paula, Naroa eta Marina.



• Zorionak **Ifigo Ayestari**, hilaren 12an 12 urte egin zituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Eneko**, zure lehen urtebetetzean. Gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, hilaren 19an urtea egingo duela. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Asier**, eguaztenezan 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Julenen eta Ikerren partez.



• Zorionak, **Aiala Telleria**, 5 urte egin dituzulako. Gure printzesa zara! Maite zaitugu.



• Zorionak, **aittita!** Abenduaren 31n 65 urte egin eta erretiroa hartu duzu behingoz. Eneko eta Haritz iloben partez.



• Zorionak, **Elene**, gure etxeko sorgintxoari. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak etxekuen partez! Ondo ospatu 38 urte horiek Katalunia aldiari.



• Zorionak, **Anton eta Gorka**, hilaren 16an eta 17an urteak beteko dituzuelako. Familiakoen, eta bereziki, Anderren partez. Oso ondo pasa!



• Zorionak, **Paulo eta Iker**, hilaren 15ean eta 17an urteak egiten dituzuelako. Muxu handi bana etxekoen partez.



Erretratu bakarrekogurra: 2 euro.
Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Haurreko Eskolak
 www.haurrekoeskolak.net

Matrikulazio epea zabalik
Urtarrilaren 18tik 29ra

Elgoibarko Haurreko Eskola
 943 742 141

OKINDEGIA

16 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

15 Fernandez
16 Yudego
17 Yudego
18 Zabaleta
19 Etxeberria (Errosario)
20 Ibañez
21 Garitaonandia
22 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«Amelia»

16, zapatua: 19:00/22:15
17, domeka: 19:00
18, astelehena: 21:30

18 astelehena

Ikuskizuna

10:30 Parrokiako jaiotza
Elgojaiotza taldeak egiten duen jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna. Parrokiako lokalean.

19 martitzena

Kirola

12:30 Mugerza Krossaren aurkezpena

Juan Mugerza Nazioarteko Krossaren aurkezpena egingo dute. Udaletxean.

Ikus-entzunexkoa

19:30 Dokumentala
Israielek Gazan egindako sarraskiari buruzko *To shoot an elephant* dokumentala eskainiko dute Iratxo tabernan.

21 eguena

Hitzaldia

18:00 Karmelo Urdangarin
IMHren 20. urteurreneko ekin-tzen barruan, Karmelo Urdangarinek Erreminta-Makinaren historiari buruzko hitzaldia eskainiko du, IMHko Museon.

22 barixakua

San Bizente Eguna

11:00 Meza
Azkue-San Roke auzoko ermitan.
Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte auzoko elkartean.

23 zapatua

Kirola

12:30 Mugerza Krosaren aurkezpena
Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren aurkezpena egingo dute. Udaletxean.

Kirola

19:30 Mugerza kroseko korrikalarietako ongi-etorria
Mugerza krosean parte hartuko dutenei harrera egingo zaie. Udaletxean.

24 domeka

Kirola

10:00 Mugerza Krosa
Juan Mugerza Nazioarteko Krosa jokatu dute, Mintxetan.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

Bazkide izateko bigarren epea zabalik!

Urtariletik abuztura: 25 €

Familia ugarietako %30eko beherapena

Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileek doan

ANIMATU ZAITEZ



GAZTELEKUKO EKINTZAK

URTARRILAREN 21EAN,
EGUAZTENA,
ETORRI GAZTELEKURA!

17:00ETATIK AURRERA
EGONGO DEN KARAOKERA!

ENTZUN DEZAGUN ZURE AHOTSA!!

Estatu Batuak-Kanada, 2009. Zuz.: Mira Nair. Akt.: Hilary Swank, Richard Gere, Ewan McGregor. 111 min. Amelia Earhart pilotu estatubatuarri buruzko filma da. 1928. urtean Atlantikoa hegaz-

kinez zeharkatu zuen aurreneko emakumea izan zen Earhart. 1937an, berriz, munduari bira emateko asmoz irten zen, baina Ozeano Barean desagertu zen, eta ez zuten haren gorpua aurkitu.



SAN ANTON JAIK 2010

15 BARIXAKUA

20:00 eta 22:15 Antzerkia

Glu Glu antzerki taldeak *Cocidito Madrileño 2* taularatuko du. Herriko Antzokian.

22:00 Pilota

San Anton txapelketako torneoaren finalerdiak. Ikastolako frontoian.

16 ZAPATUA

11:30 eta 16:30 Haur parkea

Umeentzako jolasak eta puzgarriak jarriko dituzte Plaza Handian. Euria egiten badu, ikastolako frontoian.

11:30 Bandaren kalejira

Udal Musika Bandak kalejira egingo du, Plaza Handian hasita.

12:00 Zigilu erakusketa

Altzolatarren Dorretxea elkarteak antolatuta, zigilu erakusketa inauguratuko dute. Aurten Musika Bandaren 125. urteurrenari eskainita izango da. Kultur Etxean egongo da ikusgai, hilaren 24ra arte.

17:30 Erraldi eta

buruhandiak

Herriko dultzaineroekin egingo dute kalejira. Zenezikletak ere izango dira.

20:00 Kontzertua

Musikalik abesbatzak kontzertua eskainiko du San Bartolome parrokiari.

17 DOMEKA

SAN ANTON EGUNA

11:00 Meza Nagusia

San Bartolome parrokiari. Bertan, Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

12:30 Kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

Lehen zatia:

1. *Peña taurina vitoriana*, pasodoblea (M. Domingo).
2. *Duncannon overture* (J.D. Ployar).
3. *Blue tango*, tangoa, (L. Anderson).
4. *Bands around the world*, fantasia (Paul Yoder).

Bigarren zatia

1. *Stolen moments* (O. Nelson).
2. *Blue note special* (M. Tomaro).
3. *Without a trace* (D. Beach).
4. *Donut king* (N. Capocci).

16:30 Antzerkia

Glu Glu produkzioak taldeak *Anbotoko Mari eta orrazi galdua* taularatuko du. Herriko Antzokian.

22 BARIXAKUA

22:00 Pilota

San Anton txapelketako torneoaren finala. Ikastolako frontoian.



Zerikasi

IKASTAROAK

Arkeologiaren altxorak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Urtarrilak 19
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 001 217

Jostungintza

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Urtarrilak 25
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 748 271 edo 943 257 986

Etxeko konponketak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: Otsailak 8
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 748 271 edo 943 257 986

Sakonera gutxiko buzero profesionala

Norentzat: Kontsultatu
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Apirilak 5
Non: Mutrikun
Izena emateko: 943 195 088 edo 617 333 003 (Javi)

Web diseinua

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Apirilak 19
Non: Elgoibarren
Izena emateko: Apirilak 19ra arte

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



Gure gomendioa

Jaiotza mekanikoa Urtarrilak 18, astelehena, San Bartolome parrokiari

Datorren astelehenean izango da jaiotza mekanikoa bisitatzeko azken eguna. Elgojaiotza taldeak 30. aldiz jarri du aurten martxan jaiotza, eta hainbat berrikuntza sartu dituzte gainera. Besteak beste, Txan-kakuako perratokia berreskuratu dute. Oraindik jaiotza ikustera joan ez direnek asteburu honetan izango dute azken aukera. Goizez eta arratsaldez egongo da zabalik: 10:30-13:30 eta 17:30-20:30.



herritik kanpo



jon lazcano

Ikasturtea hasi zenetik Kanarietan bizi da Jon Lazcano mendararra. Soin Hezkuntza ikasketak egiten dihardu han, Euskal Herriko hotzetik aparte. Mendaroko lagunaren eta herriko giroaren falta sentitzen dituela aitortu du, baina “oso gustura” dago. “Oso esperientzia aberasgarria” dela dio, eta bere antzera kanpora irteteko aukera duten guztiak animatu nahi ditu pauso hori ematera.

“Momentua aprobetxatzen jakin behar da, hurrengoa noiz datorren ez dakigu-eta”

Badaramazu denboratxo bat Kanarietan. Nolako hasiera izan da?

Oso ona. Pisuarekin sekulako suertea izan genuen azkenean, eta pisukideekin ere ondo moldatu naiz, orain artekoan behintzat. Lanak banatu genituen, eta ondo. Halakoetan amaren falta sentitzen da, hala ere. Bueno, halakoetan eta beste gauza askotan ere bai, ez pentsa. Hona etorri ginenean, hasiera gogor samarra izan genuen, hori bai. Pisua errentan eman behar zigun gizona ez zen gurekin fio, eta lehenengo gaua hotel batean pasatu genuen, hurrengo egunean zer izango genuen aztarranik gabe. Gogorra izan zen hori, baina hortik aurrerako guztia primeran joan da. Ikasturtea hasi baino hamar egun aurretik etorri nintzen, Erasmuseko ikaskideak ezagutzeko, eta alde horretatik, esperientzia oso ona izan zen. Jai batzuk egin genituen, eta ikaragarri ondo pasatu genuen.

Etiketik alde egiteko, ez duzu, ez, lekurik txarrera aukeratu zuk.

Egia esan, ez. Palman bizi gara gu, hiriburuan, Canteras hondartzatik bi pausotara. Bertakoen ustetan, hiriko gunerik onenetakoa da, eta, egia esan, ez gaude, ez, kexatzeko moduan. Gustua ematen du itsasoko olatu hotsarekin esnatzeak.

Soin Hezkuntza ikasketak egiten diharduzue hor. Hemen horretarako aukera egonda, no-

latan erabaki zenuen horra joatea?

Aukera hau aurkeztu zidaten, eta ez nuen birritan pentsatu. Beste ikasle batzuei entzuna nien merezi duela kanpora irteteak, oso esperientzia aberasgarria delako, eta animatu egin nintzen. Momentua aprobetxatu behar dela uste dut, hurrengo aukera noiz etorriko den ez dakigu-eta.

Zer da Kanarietatik gehien gustatu zaizuna?

Zalantzarik gabe, klima. Hemengo tenperatura oso goxoa da. Ni hona etorri nintzenean, gauetan ez zen 23 gradutik jaisten, eta egunez, gehienez ere, 28 gradu egiten zituen. Orain, neguan, hotzago egiten du, jakina, baina esan digutenaren arabera, nekez egiten du 15 gradutik behera. Klima hobea da, bai, baina janariak ez du horkoaren konparaziorik ere. Hemen ez dago gure herrian jaten diren txuleten parekorik.

Lanerako baino hondartzarako leku aproposagoa ematen du horrek.

Egia esan, ez. Kanpoan eguraldi ona dagoeanean, kosta egiten da eskolara joatea. Hala ere, hurrengo egunean ere ona egingo duela jakin badakizu, eta beraz, ez da Euskal Herriaren moduan, ona irteten duenean aprobetxatu behar dela derrigor. Nolanahi ere, ni ez nintzateke hemen geldituko bizitzen. Nik asko maite dut nire herria, eta iruditzen zait hau oporretarako leku hobea dela. Turismoaz bizi

dira ehuneko handi batean, eta horrek bere alde ona eta txarra ditu. Turista mordo bat dago, baina aukera asko eskaintzen ditu, era berean.

Sentituko duzu zerbaiten falta, baina.

Gauza asko: familia, lagunak, horko giroa... Baina, bueno, halakoetan, bueltan ere hor egongo direla esaten diot neure buruari eta listo. Oraindik denbora asko gelditzen zait hemengoaz disfrutatzeke, eta nahi nuke bisitaren bat edo izatea... Inbitazioak banatu ditut, baina “juango gara” esan arren, gero denek egin dute atzera.

Nolakoak dira kanariarrak?

Oso inpuntualak. Horrek amorrarazten nau, baina gero, berbetan oso goxoak dira eta...

Anekdotaren bat izango duzu, ezta?

Anekdotaren bat? Askok, baina hemen kontatzeko modukoak... *jeje*. Duela asko ez dela, hondartzan paseoan genbiltzala, taldetxo bat euskaraz berbetan ari zela iruditu zitzaidan. Atzera begiratu, eta edadeko hiru emakume bizkaitar ziren. Bizkaitera itxi-itxia zuten, eta Mendarotik oso urrenekoak ezin zirela izan pentsatuta, haiengana joan nintzen. Ea nongoak ziren galdetu nien, eta ondarrutarrak zirela erantzun zidaten. *Joion adarra!!!* Kanarietan etxea zutela, eta horko hotzetik eskapatzeke etortzen zirela hona. Haiek, bai, bizi!

MGS

Mutua General de Seguros
euromutua

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

MARIA LUISA URAIN ARAKISTAIN

Pza. Jausoro, 1 • 20807 Elgoibar
T/ 943 742 699 • F/943 741 235
murain@mgs.es

Agente de Seguros Exclusiva: M006715339944W

ANGEL MARIA ONDARZA izan da aurtengo urtero
bezeroen artean zozketatzen den telebistaren irabazlea.

ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Istripu aseguruak
- Istripuak errentarekin
- Gaixotasun aseguruak
- Auto eta etxe aseguruak
- Aurrezte eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- PYME eta denda aseguruak
- Diru inbertsioak
- * "Vida fondo" (unit link)
- * Burtsa
- * Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- * PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua



www.mgs.es

www.mgs.es

www.mgs.es

www.mgs.es



IMH Ingeniaritza Eskola
txandakako sistemarekin

ingeniaritza
imh



Ate irekiak

URTARRILAK 23 (11:00etan)

MARTXOAK 6 (11:00etan)

APIRILAK 24 (11:00etan Ingeniaritza + zikloak)

MAIATZAK 29 (11:00etan Ingeniaritza + zikloak)

UZTAILAK 1 (18:00etan)

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es

COCIDITO MADRILEÑO 2

Antzerkia *Glu Glu Produkzioak*

Urtarrilak 15, ostirala
20:00etan eta 22:15ean,
Herriko Antzokian



ANBOTOKO MARI ETA ORRAZI GALDUA

Glu Glu Produkzioak
Haurrentzako antzerkia

Urtarrilak 17 igandea
16:30ean, Herriko Antzokian



SAN ANTON JAIAK 2010

URTARRILAK 16, LARUNBATA

- 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era: umeentzako parkea Foruen plazan (euria eginez gero, Ikastolan).
- 11:30ean, Udal Musika Bandaren kalejira.
- 12:00etan, XXX. zigilu erakusketaren inaugurazioa.
- 17:30ean, erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira Herriko Dultzaineroekin.

URTARRILAK 17, IGANDEA

- 12:30ean, Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.



Elgoibarko Udala
Kultura saia



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euzko Jaurlarria



IKUSKIZUN ESZENIKOAK

Sarrera Salmenta



kutxa

CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net